


Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna



Material didaktikoa

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



EZTABAIDATZEN!!!

EZTABAIDATZEN!!!

Irakasgaiak: hizkuntzak, tutoretza, irakasgai guztiak

Gaia: AHOZKO ELKARRERAGINA

Maila: DBHko bigarren maila

Saio kopurua: 6-7 saio

Proposamenaren testuingurua:

Sekuentzia didaktiko labur hau ahozko elkarreragina lantzeko proposamena da. Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna osatzen duten atal nagusietako bat izanik, elkarrekintza ikasleek landu behar duten dimentsioa da.

Hala ere, komenigarria da sekuentzia hau proiektu orokor batean integratzea. Bertako jardueren bidez, bi pertsonaren arteko eztabaida landuko da eta oso aproposa da argudiatzeari buruzko lana hasteko (adibidez, debate bat prestatu baino lehen, iritzi artikulua landu baino lehen...).

Landuko diren oinarrizko gaitasunak:

- Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna (1,2, 3, 4 ,5, 6, 7, 8. jarduerak)
- Ikasten ikasteko gaitasuna (1,4, 6, 8.jarduerak)
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (1,2, 3, 6, 8.jarduerak)
- Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna (1, 2, 3, 4, 6, 7, 8.jarduerak)
- IKTak eta baliabide digitalak erabiltzeko gaitasuna (7.jarduera)
- (Eztabaidagaien arabera, beste gaitasun batzuk)

Helburu didaktikoak:

- Gizarte-harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.
- Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera izatea.
- Eztabaidaren arauak ezagutzea.
- Argudioak eta kontra argudioak bereiztea.
- Kontra argudiatzeko egiturak erabiltzea.
- Elkarrizketa hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia erabiltzea.
- Auto-ebaluazioan eta koebaluazioan aritzea.
- Bakoitzaren hizkuntza mailari buruzko gogoeta egitea.
- Eztabaida arauari buruz ikasitakoa beste testuinguru batzuetan erabiltzea.
- Ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.

Edukiak:

- Elkarreraginean aritzeko prozedurak.
- Ahozko diskurtsoa kudeatzeko prozedurak.
- Eztabaidarako arauak.
- Kontra argudiatzeko prozedurak.
- Elkarrizketa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko komunikazio-estrategien

HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA. BIGARREN HEZKUNTZA
DBHko bigarren mailarako sekuentzia didaktikoa

erabilpena.

- Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera.
- Ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa
- Auto-ebaluaziorako eta koebaluaziorako prozedurak.

Jardueren sekuentzia:

Planifikatzea

1. jarduera. **Zer da eztabaidatzea?** Motibazioa eta negoziazioa

Gauzatzea

2. jarduera. **Eztabaida ezazue!** Ikasleen intereseko gaiak horiek defendatzeko argudioak eta kontra argudioak proposatzea, besterik gabe, eztabaida dezaten.
3. jarduera. **Zer egiten du eztabaidatzen dakienak?** Eztabaidarako zenbait arau denen artean adostea.
4. jarduera. **Zer egin behar dugu guk?** Talde handian, erabakiak hartzea prozedura eta ebaluazio txantiloiko adierazleak adosteko.
5. jarduera. **Kontra argudiatzen.** Besteak dioena kontuan hartzeko hizkuntza baliabideak lantzea. Perpaus kontzesiboak eta aurkaritzako lokailuak.
6. jarduera. **Ekin berriro eztabaidari!** Adostutako txantiloari jarraikiz, berriro jardutea.

Erabiltzea

7. jarduera. **Oraintxe bai iritzia defendatzeko aukera!** Beste edozein gai hautatu eta grabazioa egitea.
8. jarduera. Grabazioaren ebaluazioa eta balorazioen justifikazioa.

Ebaluazioa:

Adierazleak:

- Ea ahozko interakzioetan parte hartzen duen.
- Ea komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera duen.
- Ea eztabaidaren arauak ezagutzen eta erabiltzen dituen.
- Ea komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izaten dituen.
- Ea argudio eta kontra argudioak bereizten dituen.
- Ea kontra argudiatzeko egiturak erabiltzen dituen.
- Ea egoerari begira erregistro egokia erabiltzen duen.
- Ea elkarrizketa hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten komunikazio-estrategiak erabiltzen dituen.
- Ea ikuspegi pertsonal bat azaltzen duen.
- Ea auto-ebaluaziorako eta koebaluaziorako jarduerak burutu dituen.
- Ea bere hizkuntza mailari buruzko gogoeta egin duen.
- Ea eztabaida araei buruz ikasitakoa beste testuinguru batzuetan erabiltzen duen.
- Ea ahozko elkarrizketetan euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izan duen.

Tresnak:

Jardueren sekuentzian

Hasierako ebaluazioa: 2. jarduera

Prozesuaren ebaluazioa: 2, 4. eta 6. jarduerak

Amaierako ebaluazioa: Azken ekoizpena. 8. jarduera

Irakasleak erabiliko duen beste edozein. Ebaluazio adierazleen arabera behaketa.


HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA. BIGARREN HEZKUNTZA
DBHko bigarren mailarako sekuentzia didaktikoa

1. JARDUERA. Zer da eztabaidatzea?

Ondo eztabaidatzea, ahozko jardunean modu eraginkorrean aritzea ez da zuek uste duzuen bezain erraza, ez horixe!

Baina, zer da eztabaidatzea? Zer uste duzue?

Zuen ustez, badakizue eztabaidatzen? Begiratu honako irudiei. Zer iradokitzen dizuete?



Sekuentzia honen bidez eztabaidatzen dakitenek zer egiten duten aztertuko duzue. Zuek ere eztabaidatzeari ekingo diozue elkarreragin eraginkorra izateko oinarritzko zenbait ezaugarri kontuan hartu ondoren.

Elkarrizketak grabatuko dituzue eta denok elkarrekin aztertuko duzue nola aritu zareten.. Baina lana bideratzeko zenbait erabaki hartu behar dituzue. Talde handian bete ondoko laukitxo hauek irakaslearen laguntzaz.

Zer egingo dugu?

Nola?

Zein da helburua?

Nola ebaluatuko da gure lana?

2. JARDUERA. Eztabaida ezazue!

Ondoko hiru gai hauek proposatzen dizkizuegu:

- “Errealiti” batean parte hartuko zenuke?
- Gelako irtenaldia antolatzean, mendi aterpetxe batera ala Port-Aventurara?
- Koadrila elkartzeko lokal bat alokatzearen alde ala kontra?

Lauko taldeetan bilduko zarete eta bikoteak egingo dituzue. Proposatutako hiru gaietako bat hautatu eta, lehendabizi A eta B aukerak banatu. Bikotekide batek A aukerari eutsi beharko dio eta besteak, berriz, B aukerari. **Eztabaidaren helburua beste kidea konbentzitzea da, ez ahaztu!** Laguntza moduan, zenbait argudio eta kontra-argudio idatzi dizkizuegu. Besterik bururaten bazaizue, gehitu.

Gaiak eta aukerak arretaz aztertu. Gero, proposatzen diren argudioez pentsatu ondoren, talde bakoitzean bikote bat 5 minutuan arituko da gaia eztabaidatzen, beste bikotea behatzaile zereginetan aritzen den bitartean, isiltasunean. Batak eztabaidatzen ari direnek zer egiten duten ondo idatziko du; besteak, berriz, zer egiten duten txarto apuntatuko du.

Ondoren, zereginak trukatu dituzue bikoteen artean. Orain, beste bikotekoak arituko dira eztabaidan.

Amaitzean, talde handian elkartuko dituzue behaketaren emaitzak eta denon artean komentatuko duzue, zer egin duzuen ondo eta zer gaizki.

1. GAIA

“Errealiti” batean parte hartuko zenuke?

A ikaslea: *Noski! Irabazi arte!*



- Telebistan agertzeagatik dirutza emango didate!
- Ezaguna izango naiz eta parrandan ibiliko naiz handik eta hemendik gonbidatuta!
- Oso esperientzia aberasgarria izango da, egoera ezezagun batean pertsona bezala asko ikasiko nuke.
- Bidaiak eta egingo nituzke: Pazifiko irletara, Karibera, Patagonia...
- Elkarbizitzako egoera bereziak sortzen dira.
- ...
- ...



1. GAIA

“Errealiti” batean parte hartuko zenuke?

B ikaslea: *Falta zaidana! Inoiz ere ez!*



- Ez nuke inoiz nire bizitza salduko!
- Ezezagunekin bizitzea edo bidaiatzea ez da nire gustukoa.
- Etxe batetik irten barik ez nuke agoantatuko, kaletik ibili barik, lagunekin hitz egin barik..
- Hara joaten bazara, ikasteari utzi behar diozu eta kurtsoa galtzen da.
- Programa amaitzean, ezin duzu betiko bizimodua egin.
- ...
- ...



2. GAIA

Gelako irtenaldia antolatzean, mendi aterpetxe batera ala Port-Aventurara?

A ikaslea: Aterpetxea bai erakargarria!



- Oso giro osasuntsua dago mendian.
- Kirolak egingo ditugu: mendian ibili, eskalatu...
- Elkarbitza sustatzen da, elkarrekin egongo gara denbora guztian eta!
- Merke-merkea da, ia dohainik, etxetik jana eramaten badugu
- Gauean izarrak ikusiko ditugu eta goizean eguzkia irteten ikus dezakegu.
- ...
- ...



2. GAIA

Gelako irtenaldia antolatzean, mendi aterpetxe batera ala Port-Aventurara?

B ikaslea: *Port-Aventuran primeran pasatuko dugu!*



- Dibertigarriak dira hango tramankuluak!
- Eguraldi ona izango dugunez, hondartzara joateko ere denbora izango dugu.
- Inguruko lokaletan gaueko martxa izugarria da, diskoteketan edo hondartzaren ondoko tabernetan.
- Hotel batean egongo garenez, ez dugu ohea egin behar!!
- Port Aventuran antzerkia, abestiak eta beste herriko ohiturak ikusten dira, oso interesgarria kultura desberdinak ezagutzeko.
- ...
- ...



3. GAIA:

Koadrila elkartzeko lokal bat alokatzearen alde ala kontra?

A ikaslea. *Baina, badago beste aukerarik ala?*



*¡Lonjeros, unidos,
jamás serán
vencidos!*

- Lagunekin egoteko, gure gustuko gauzak egiteko, aukerarik ederrena.
- Lokalaz arduratu behar dugu, eta guretzat oso komenigarria da hori, arduratsuak izateko.
- Asko ikasten da lokala zaintzen: harrikoa egiten, erosketak egiten, garbiketa...
- Gure musika entzuteko edo pelikulak merke ikusteko ez dago aukera aproposagorik.
- Herrialde honetan, udazkenetik udara bitartean euria da, eta lokalean aterpe bat daukagu.
- ...
- ...

3 . GAIA

Koadrila elkartzeko lokal bat alokatzearen alde ala kontra?

B ikaslea. Lokala zertarako? Askoz hobeto kalean!




- Lokalean betiko lagunak bakarrik zaudete, ez duzu inor gehiago ezagutzeko aukerarik izango.
- Lagunekin haserretuz gero, lokalean ez zaude gustura eta ez daukazu nora joan.
- Lagunen arteko iskanbilak askotan sortzen dira: nori tokatzen zaion garbiketa, nork ez duen ordaindu...
- Lagun batzuk gehiegi edateko edo erretzeko erabiltzen dute lokala, eta gero guztiok erredun.
- Batzuek kanpoko jendea ekartzen dute eta gero ez dira arduratzen.
- ...
- ...



3. JARDUERA. Zer egiten du eztabaidatzen dakienak?

Berriro bilduko zarete taldeka eta beheko tauletan adierazitako ezaugarriei erreparatuko diezue. Arretaz aztertu eta taldeka eztabaidatu zein diren elkarrizketan ondo aritzen direnek, hau da, ondo eztabaidatzen dakitenek, izan behar dituzten ezaugarriak. Elkarreraginean era eraginkorrean aritzeko ezaugarriak egokienak hautatu behar dituzue. Hamar bat.



Jarduera hau garatzeko, adierazleen zerrendan ezaugarri positiboak, baztertu beharreko ezaugarriak eta lelokeriak (edo ez) nahastu dira. Idatzi, zuen ustez, kontuan hartu beharko liratekeenak.

Lauko taldeetan bildu eta bikoteka banatu ezaugarriak (A eta B aukeretakoak). Moztu itzazue eta bakoitzak berak ditueni erreparatuko die arretaz. Ondoren, elkarrekin hitz egin eta erabaki beharko duzue zein diren, zuen ustez, kontuan hartu behar diren hamar ezaugarri. Eztabaidan giza arauak errespetatu eta taldekide guztien iritzia kontuan hartu.


Zer egiten du eztabaidatzen dakienak? A eredu

1. Pertsona guztiekin era berean hitz egiten du.	2. Hitza kentzen du interesik gabeko xehetasunak kontatzeko.
3. Keinuka aritzen da azaltzen duena ulertarazteko asmoz.	4. Hizkera aberatsa eta oparoa erabiltzen du.
5. Esaten duena oso ondo ulertzen da.	6. Solaskideak aukeratutako gaia mantentzen du.
7. Esaten duena ulertarazteko modua bilatzen du.	8. Solaskideak esandakoa errepikatzen du.
9. Gelakide maitagarrietako bat da.	10. Etengabe aldatzen du gaia.
11. Jantzera egokia du.	12. Isildu egiten da solaskideak hitz egiten duenean.
13. Ideia bat argitzeko, bitan edo hirutan errepikatzen du beste hitz edo esaldi batzuk erabiliz.	14. Ondo dakienari buruz baino ez du hitz egiten.
15. Urtean behin bakarrik mozten du ilea.	16. Elkarrizketaren amaieran, laburpen bat egiten du.
17. Oso ahots atsegina du.	18. Elkarrizketaren hasieran, gai bat proposatzen du.

19. Adibideak eta pasadizoak erabiltzen ditu solasa entretenigarriagoa izan dadin.	20. Hitz betegarri asko erabiltzen ditu.
21. Hitz zailak eta ondo ulertzen ez diren teknizismoak erabiltzen ditu.	22....

Zer egiten du eztabaidatzen dakienak? B eredua

23. Ortografia akats gutxi egiten du.	24. Solaskideekiko begirunea erakusten du eta adeitsua da.
25. Solaskidearen aurka dago beti.	26. Argi eta ozenki hitz egiten du.
27. Hitz egitean, akats sintaktiko batzuk egiten ditu	28. Oso ondo prestatzen ditu solasaldiak
29. Hitz egitean, inprobisatu egiten du.	30. Gai guztiei buruz asko daki.
31. Gaia aldatzen du.	32. Hitz egiten duen bakoitzean, txiste bat sartzen du.
33. Etengabe galdetzen du "ulertzen duzu?" solaskidearen ulermena ziurtatzeko.	34. Mesprezatu egiten du solaskideek esaten dutena.
35. Batzuetan ez daki ondo zer esaten duen.	36. Beste hizkuntzetatik hartutako hitz eta esaldi asko erabiltzen ditu.
37. Erregistro serio eta formala erabiltzen du.	38. Datu asko ematen ditu, baina ordenarik gabe.
39. Solaskidearen begietara begiratzen du	40. Oporretan, atzerrira joaten da beti.
41. Bere bizitzari lotutako adibideak, gertakizunak ... kontatzen ditu.	42. Argi hitz egiten du.



4. JARDUERA. Zer egin behar dugu guk?

Orain talde handian bilduko zarete eta irakaslearekin batera, aurreko jardueraren emaitzetatik abiatuta, elkarreragina ebaluatzeko txantiloia osatuko duzue.



Ondoko taulan denok adostuko dituzuen ezaugarriak idatziko dituzue. Orri hau erabiliko duzue gero ikaskideen ebaluzioa egiteko, bai eta praktikatzen arituko zaretenean prozedura orri gisa erabiltzeko ere. Gogoratu hamar ezaugarri idatzi behar dituzuela!

AHOZKO ELKARRERAGINA

2008-2009
ikasturtea
.... maila

Gai naiz ohiko gaien inguruan aritzeko, baita nire ikuspuntuak azaldu eta defendatzeko. Natural eta jariotasunez jarduten dut, maiz pentsatu behar izaten badut ere, zein hitz edo zein esapide erabili.

HORRETARAKO HONAKO EZAUGARRIAK KONTUAN IZANGO DITUT:	BAI	ORAINDIK EZ
1.		
2.		
3.		
4.		
5.		
6.		
7.		
8.		
9.		
10.		

Ikaskideen iritzia:

Irakaslearen iritzia:

5. JARDUERA. Kontra argudiatzen

Ahozko eztabaidetan guztiz beharrezkoa da kontrako argudiatzea, bestela, bakoitzak berea baino adierazten ez badu, hau da, besteek diotena kontuan hartu gabe, ez litzateke diskurtsoaren komunikazio helburua beteko.

Elkar argitaletxeko Ostadar 'Euskara eta literatura 'Argudiatzen 1

Zer da kontrako argudiatzea?

Eztabaidan norberak ematen dituen arrazoiekin besteen ikuspuntuei eragozpenak edo mugak jartzea da.

A Igorleak, esaterako, honako tesia defendatu nahi badu:

Mutilek eta neskek kirola elkarrekin praktikatu beharko lukete

B Igorleak, berriz, ikuspegi horren aurka egonik, honako arrazoi hau eman badu:

Mutilek eta neskek ezaugarri fisiko desberdinak dituzte

Kontrako argudiatzea

A igorleak B igorlearen arrazoa txertatu du bere diskurtsoan, hura indargabetzeko arrazoiak emanez, honela:

Nahiz eta *mutilek eta neskek ezaugarri fisiko desberdinak eduki, elkarrekin hezten badira, batzuen eta besteen ezaugarriek taldearen gaitasuna hobetzeko balio dezakete.*

Kontrako argudiatzean emandako ideiak elkartzeko, hizkuntzak honako baliabideak eskaintzen ditu:

1.- Perpaus mailan. **Perpaus kontzesiboak**

Perpaus nagusiko ekintza betetzeko nolabaiteko eragozpen edo oposizio gisa azaltzen da menpeko perpausa kontzesiboan esaten dena:

*-Mutilek eta neskek ezaugarri fisiko desberdinak dituzten **arren** (badituzte **ere** ...), kirola elkarrekin praktikatu beharko lukete.*

-Nahiz eta

2.- Testu mailan. **Lokailu aurkariak**

-Kontrajartze txikia adierazten duten lokailuak.

*Mutilek eta neskek ezaugarri fisiko desberdinak dituzte. **Hala ere,**(**hala eta guztiz ere, edonola ere, dena dela, alabaina, baina...**) elkarrekin hezten badira, elkarrekin aritu beharko lirateke eta horrela batzuen eta besteen ezaugarriek taldearen gaitasuna hobetzen lagun dezakete.*

-Kontrajartze handia adierazteko lokailuak

(...), **ordea,**
(...), **aldiz,**
(...), **aitzitik,**

Gogoratu, lokailuak koma artean idatzi behar direla.



Ariketak

5.1. Perpaus kontzesiboak sortzen

Binaka elkartuko zarete. Saiatu zaitetze ondoko enuntziatu bikoteak erlazionatzen perpaus kontzesiboak sortuz.

- a) Mundu guztiak daki bi sexuen artean ezberdintasun fisikoak daudela
- b) Ezberdintasun fisikoak ez dira bi sexuetako pertsonen elkarrekin kirola ez egiteko adinakoak.

.....

- c) Oporretan familiarekin egotea hobe!
- d) Oporrak oso luzeak dira eta aukera dago makina bat gauza egiteko eta marina bat lekutara joateko.

.....

- e) Gelakoekin Port Aventura joatea oso dibertigarria izan daiteke
- f) Mendiko aterpetxe batera bagoaz, naturaz gozatzeko eta mendiko kirolak egiteko aukera izango dugu.

.....

5.2. Berridazten

Ondokoak perpaus kontzesiboak dira, zuek eztabaidan erabil behar dituzuen bezalakoak. Bikoteka arituko zarete eta berridatzi egingo dituzue parentesi arteko elementua erabiliz.

- g) Lokala alokatzeko aukera dugun arren, kalean lagun gehiagorekin egon gaitzke (ba....ere)

.....

- h) Errealiti batean parte hartzeko aukera izango banu ere, uste dut norberaren intimitatea askoz inportanteagoa dela.(Nahiz eta)

.....

- i) Familiarekin urte osoan egonda ere, oporretan urte osoan egiten ez diren ekintzak egin ahal dira (arren).

.....

5.3. Lokailuekin orain

Erlazionatu ondorengo enuntziatu bikoteak lokailuen bidez. Kontuan hartu enuntziatuen arteko kontrajartze maila, lokailu egokiak hautatzeko.


- j) Errealiti batean parte hartuko genuke
- k) Anonimotasuna galtzen da

.....

- l) Entrenamenduak kirol maila hobetzen laguntzen du
- m) Entrenamendu berak eragin ezberdinak izan ditzake pertsona bakoitzarengan

6. JARDUERA. Ekin berriro eztabaidari!

Dagoeneko gogoeta egin duzue eta hizkuntzari lotutako ariketak burutu dituzue, modu eraginkorrean hobeto jarduteko. Orain lehengo jarduera errepikatuko duzue, modu berean, lauko taldean, baina gaia aldatuko duzue. Horretarako, hasieran emandako horietatik beste bat aukeratuko duzue.



Praktikatu egingo duzue eta horretarako, txantiloian zehaztu dituzuen ezaugarriak erreparatuko diezue! Kontrol zerrenda gisa erabili.

7 . JARDUERA. Oraintxe bai iritzia defendatzeko aukera!

Izenburuak adierazten duen moduan, aukera paregabea duzue orain behar bezala eztabaidatzen dakizuela erakusteko. Horretarako, asko praktikatu duzuen eta badakizuen zer egin behar duzuen eta zer ez, grabatu egingo dugu eztabaida.

Gero, denok ikusi eta aztertu egingo duzue!



Orain, eztabaidagaia aldatuko duzue eta beste bat, berria, proposatu. Taldeka bilduta, bikote bakoitzak gai bat, edozein, aukeratuko du, esaterako, zuen inguruan gertatzen

den arazoren batekin erlazionatuta dagoena. Ez ahaztu bi alde kontrajarri bilatu behar dituzuela eta kide bakoitzak iritzia bati eutsi behar diola!

Ondoren, bikote bakoitza bost minutuan arituko da bata hautatutako gaiaren alde eta bestea kontra, beste bikoteak, ikastaldekoen artean adostutako txantiloia arabera, balorazioa egiten duen bitartean. Irakasleak edo gelako edozein kidek egingo du eztabaida saioen grabazioa.

8 . JARDUERA. Egindakoa ebaluatzen

Azkenik, gelakide guztiok grabazioak ikusiko dituzue eta behatzaileek justifikatu egingo dute egin duten ebaluazioa. Horrenbestez, zer hartu duten kontuan, zer baloratu duten eta zergatik, beste bikotekoek zer egin duten ondo eta zer txarto arrazoituko dute.

